

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egungo merkatuan, gure menuak nahi beste pertsonalizatzeko aukera dugu, baina aukera hori ez dago eskuragarri gozogintzaren sektorean. Askotan, okindegi edo supermerkatu batean opilak erosi nahi ditugunean, ez dugu ezer aurkitzen gure behar eta itxaropenekin bat datorrenik. Hori dela eta, askotan opil industrialak erabiltzen ditugu alternatiba gisa, eta ultraprozesatuek eskaintzen ez dituzten etxeko elikagaiek ematen dizkiguten kalitatea eta mantenugaiak kentzen ditugu.

Gure enpresarekin edozein opil eta gozotegi erosterakoan aukeratzeko askatasuna eskaintzea bilatzen dugu, eta edonork gozogintza erosteko aukera izatea, bere beharrak eta nahiak asetuta. Horregatik, lehiakideengandik bereizten gaituena berritasuna eta pertsonalizazioa da. Gainera, lehengaiak dagokionez, kalitatezko produktuak berrmatuko ditugu. Alde batetik, kilometro 0-ko produktuak izango dira, hau da, hemen, Araban, ekoiztutakoak. Horrek lagunduko dio gure barne ekonomiaren hazkundeari eta kalitate esakiko dugu. mo mismos precios pero calidad mejora Hortaz aparte, gazteok jatetxeek eskaintzen dizkiguten app-ak erabili ohi ditugu gure janaria etxetik edo lokalean bertan eskatzeko. Zerbitzu hori jatetxeek eskaintzen dute, batez ere janari azkarrekoek, baina ez dago eskaerak egiteko app propioa duen gozotegirik.

Gure asmoa da smartphone-etatik eta gure lokalean jarriko ditugun pantaila digitaletatik erabil daitekeen aplikazio bat sortzea. Horrela, eskaerak arindu, erreserbak etxetik egin eta pandemia hori modu seguruagoan gauzatzen lagunduko dugu. Pantaila horien bidez, erabilera bakoitzaren ondoren desinfektatuko dira, eta aplikazio honen bidez, gure dendan pilaketarik ez izateko aukera izango dugu, gure saltzaileen segurtasuna erraztuko dugu, bezeroen aurrean gutxiago egongo delako, eta inguru segurua sortuko dugu.